

OBRA PARTIKULARRAK

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren (Etxebide) laguntza-lerro bat da. Etxebizitzetan 3.000 €-tik gorako kostua duten eta 20 urtetik gorako antzinatasuna duten "birgaitze-jarduketa" guztiak eskatu ahal izango dituzte. Laguntza horiek jasotzeko, familia bakarreko etxebizitzaren kasuan, EIT egin eta erregistratu beharko da, eskaera egin aurretik. Eskaera obrak hasi aurretik izapidetu beharko da. Laguntzak atal hauetan zehazten dira:

Zerga-onurak

Bizikidetzaren unitate guztientzat, GFAko Ogasun Sailak ezarritako mugekin, eta betiere Eusko Jaurlaritzak jarduketa hori birgaitze-jarduketatzat hartzen badu.

Maileguak:

Urteko 39.000 €-tik beherako diru-sarrerara haztatuak dituzten bizikidetzaren unitateentzako finantzaketa kualifikatua.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza, urteko 25.000 €-tik beherako diru-sarrerara haztatuak dituzten bizilagunentzako edo jabeentzako birgaitze-lanetarako.

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza berezia 65 urtetik gorako bizilagunentzat edo jabeentzat edo mugikortasun murriztua edo sensoriala duten eta diru-sarrerak (DsH) < 25.000 € edo (DsH) < 12.000 € dituzten bizikidetzaren unitate guztientzat.

DsH	FU Kideak	1.mot. obrak	2.mot. obrak	3.mot. obrak	4.mot. obrak
JARDUKETA INTEGRATUA**					
<9.000 €	=<3	75 %	75 %	80 %	60 %
	>3	80 %	80 %	85 %	65 %
9.001 € 15.000 €	=<3	70 %	75 %	75 %	65 %
	> 3	75 %	80 %	80 %	60 %
15.001 € 25.000 €	=<3	60 %	65 %	65 %	55 %
	> 3	65 %	70 %	70 %	60 %
GEHIENEZ (€)		7.500 €	9.500 €	10.000 €	5.000 €
JARDUKETA ISOLATUA*					
<9.000 €	=<3	65 %	70 %	70 %	50 %
	>3	70 %	75 %	75 %	55 %
9.001 € 15.000 €	=<3	60 %	65 %	65 %	55 %
	> 3	65 %	70 %	70 %	50 %
15.001 € 25.000 €	=<3	50 %	55 %	55 %	45 %
	> 3	55 %	60 %	60 %	50 %
GEHIENEZ (€)		5.500 €	7.500 €	8.000 €	3.000 €

DsH	FU Kideak	Irisgarritasun*
< 12.000 €	-	100 %
12.001 € 15.000 €	1	25 %
	2	50 %
15.001 € 18.000 €	=<3	100 %
	1	0 %
18.001 € 25.000 €	2	25 %
	=<3	50 %
25.001 € 30.000 €	1/2	0 %
	=<3	25 %

LOKALAK ETXEBIZITZARA BIRGAITZEKO

Jarduketa integratua: % 35 - Max 5.500 €

Jarduketa isolatua: % 20 - Max 4.000 €

BIZIGUNE PROGRAMAN SARTZEAN

% 25eko aparteko laguntza - Max. 4.000 €

1. mota: Kontserbazio eta bizigarritasun-obrak: instalazio osoen exekuzio berria edo eraberritzea, espazioen funtzionaltasuna hobetzea, barneko airearen kalitatea hobetzea, hondakinak kudeatzeko sistemak; konfort akustikoa hobetzea; lokalak etxebizitza bihurtzea; fatxada, estalkia eta egitura familia bakarreko eraikinen kasuan.

2. mota: Efizientzia energetikoa hobetzeko obrak: berokuntza, hozte, aireztapen, ur bero sanitarioaren ekoizpena, argiztapena, energia elektrikoaren autokontsumoa, inguratzaile termikoa eta akustikoa, barneko airearen kalitatea; isolamendu termikoa; leihoak eta galdarak ordeztzea. CO2 isuriak % 30 murriztea edo gutxieneko E adierazle globala EEEn.

3. mota: Irisgarritasuna hobetzeko obrak: komunak eta etxebizitzaren banaketa egokitzea. Laguntzak eskatu ahal izango dituzte, nahiz eta gastu-etxebizitza bakoitzeko 3.000 € edo 20 urteko antzinatasuna lortu ez.

4. mota: Eraikuntzaren akabera orokorra eraikuntza onaren printzipioetara egokitzea obrak: etxebizitzaren barne-berrikuntzak, igeltserotzakoak, eskaiolakoak, iturgintzako barne-arotzeriakoak, etab., eta instalazio partzialak

**** Jarduketa integratuak** dira errehabilitazio integratuko eremu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko HH eta Arrabalak, Elgetako HH, Leintz-Gatzagako HH, Antzuolako HH, Aretxabaletako HH, Oñatiko HH, Bergarako HH eta Eskoriatzako HH. Eta eremu degradatu hauetakoren batean garatzen direnak: Arrasateko San Andres auzoan (A-7 eta A-11), Aretxabaletako San Migel de Bedarreta auzoan eta Bergarako Osintxu auzoan. *** Jarduera isolatuak** izango dira beste guztiak.

Lege-esparrua

, 2021eko uztailaren 21ekoa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitzaren eta eraikinen birgaitzearen, irisgarritasunaren eta energia-efizientziaren arloko jarduketa babesgarrietarako finantza-neurri buruzkoa.